

05/N Zirkularra
2021-2022

EUSKAL HERRIKO DISTANTZIA LUZEKO TXAPELKETA

1. EGUNA: 2021eko abenduaren 18a
2. TOKIA: Maialen Chourraut Kiroldegia (Lasarte-Oria)
3. ORDUA: 10:00
4. IGERILEKUA: 25 m eta 6 kale kronometraje elektronikoz
5. PROBEN PROGRAMA:

1.-	2000 libre	Gizonezkoak	Haurrak
2.-	2000 libre	Emakumezkoak	Haurrak
3.-	3000 libre	Gizonezkoak	Senior-Junior 1/2
4.-	3000 libre	Emakumezkoak	Senior-Junior 1/2

6. PARTE-HARTZEA:

6.1. KATEGORIAK:

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
SENIOR	2002 eta aurrekoak	2002 eta aurrekoak
JUNIOR 2	2004 eta 2003	2004 eta 2003
JUNIOR 1	2006 eta 2005	2006 eta 2005
HAURRAK	2008 eta 2007	2008 eta 2007

6.2. Federazioaren lizentzia (EIF-FVN eta FNN-NIF) denboraldi honetarako indarrean duten igerilariak bakarrik parte hartu ahal izango dute, beren adinerako gutxieneko taularen zirkularrean jasotako gutxienekoa egiaztatzen badute, 1.500 m-ko proba librean, gizonezkoen kasuan, eta 800 m-ko proba librean, emakumezkoen kasuan.

6.3. EIF-FVnk eta FNN-NIFek beretzat gordeko dute kide ez diren klubuen parte-hartzea onartzeko eskubidea. **Partaidetza horiek onartzeak ez du inola ere ekarriko aurreikusitako serie-kopurua handitzea.**

6.4. Gehienez gizonezko hiru serie eta emakumezko hiru serie hartuko dute parte. Parte hartu nahi duten igerilari gehiago egonez gero, zerrenda bat egingo da, 2019-2020 eta 2020-2021 denboraldiko marken rankingean oinarrituta, hain zuzen, gizonezkoen 1.500 metroko proban eta emakumezkoen 800 metroko proban.

6.5. C Klub bakoitzak nahi adina igerilari aurkeztu ahal izango ditu proba bakoitzean, 6.3 puntuan adierazitako mugarekin.

7. IZEN EMATEA:

7.1. Klubek izena eman beharko dute Leverade bidez, abenduaren 14ko (asteartea) 10: 00ak baino lehen, eta ez dira onartuko geroago jasotakoak.

7.2. Klubei ez zaie abisatuko inskripzioaren bat ez badator bat araudi honetako 6. puntuan adierazitako parte hartzeko baldintzekin, eta haien erantzukizuna izango da igerilariak ez parte hartzea, ez beste inorena. Federazio antolatzaileek ez dute beren gain hartuko ez-betetze horrek ekar ditzakeen gastuen erantzukizunik.

7.3. EIF-FVNk edo FNN-NIFek inskripzioen behin-behineko zerrenda argitaratuko dute beren web orrian (www.eif-fvn.org edo www.fnn-nif.com) **abenduaren 15ean, asteazkenean**. Inskripzioetan aurkitutako akatsen berri jakinaraziko diote EIF-FVNri edo FNN-NIFeri **abenduaren 16ko, osteguneko, 12:00ak** baino lehen. Une horretatik aurrera ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

7.4. Lehiaketa EAEn egiten bada, EIF-FVNko klubek 15 euro ordainduko dituzte beren klubean inskribatutako lehiakide bakoitzeko, izena emateko gastu gisa.

7.5. Klubak EIF-FVNkoak edo FNN-NIFekoak ez badira, horiek izena emateko gastu gisa ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko diete klub horiei.

8. LEHIAKETAREN FORMULA

8.1. Serieak marken arabera osatuko dira, jaioturtea kontuan hartu gabe: gizonezkoen kategorian 1.500 metro libre eta emakumezkoen kategorian 800 metro libre. 2019ko urriaren 1etik aurrera lortutako markak hartuko dira baliozkotzat.

8.2. Bajarik izanez gero edo inskripzioak EIF-FVNk eta FNN-NIFek ezarritakoetara iristen ez badira, serie mistoak egin ahal izango dira.

8.3. Erlojuaren kontrako sistemarekin igeri egingo da.

8.4. Irteera uretatik izango da beti.

9. BAJAK

9.1. Bajak idatziz eta inprimaki ofizialean jakinaraziko dira. Inprimaki hori behar bezala beteta aurkeztuko da lehiaketaren idazkaritzan, jardunaldia hasi baino ordu erdi lehenago arte.

9.2. Bajak taldeko ordezkariak edo entrenatzaileak emango ditu (lehiaketa honetarako akreditatuta egon beharko dute), eta serie-zenbakia, igerilariaren izena eta kalea zehaztuko dira.

9.3. Parte-hartzaileen zerrenda argitaratu ondoren aurkeztutako baja bakoitzeko 2 euroko isuna kobratuko da. Igerilari bat ez bada proba batera aurkezten garaiz eta behar bezala baja eman gabe, dagokion klubak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

10. SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK

10.1. Gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapen bat egingo da proba bakoitzeko, eta Euskal Herriko gizonezkoen txapelduna eta Euskal Herriko emakumezkoen txapelduna zehaztuko dira.

11. TROFEOAK ETA SARIAK

11.1 Proba eta kategoria bakoitzean lehen hiru sailkatuek domina jasoko dute sari gisa.

12. ZEHAPENAK ETA AZKEN OHARRA

12.1. EIF-FVN/FNN-NIFek behar diren zehapenak jarri ahal izango dituzte gutxieneko markak edo eskatutako bestelako baldintzak faltsutzen badira.

12.2. EIF-FVN/FNN-NIFek lehiaketa-zuzendari bat izendatuko dute lehiaketa honetarako, eta agintaritzaren gorenaren izango da txapelketa antolatze eta lehiaketako epaile-arbitroaren agintea oztokatzen ez duten erreklamazioak ebazteko.

**NAFARROAKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN NAVARRA DE NATACIÓN**

Paulino Caballero, 13, 31002 - Pamplona – Iruña
Teléfono y Fax: 948227279
www.fnn-nif.com

**EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE NATACIÓN**

Julián Gaiarre, 50 – Bajo – 48004 BILBAO
Teléfono 94 459 81 96 – Fax 94 459 81 97
www.eif-fvn.org

12.3. Araudi honetan aurreikusten ez den guztia EIF-FVNren edo FNN-NIFen (lehiaketa egiten den tokiaren arabera) lehiaketei buruzko araudiak edo, hala badagokio, RFENren lehiaketen erregelamendu orokorrak arautuko dute.

12.4.- Federazioek eskubidea izango dute beren babesleak kirol-materiala saltzeko stand bat jartzeko.

**EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACION VASCA DE NATACION**

**NAFARROAKO IGERIKETA FEDERAZIOA
FEDERACIÓN NAVARRA DE NATACIÓN**